

**EUSEBIO ERKIAGAREN
OLERKIEN BIBLIOGRAFIA
aldizkari eta egunkarietan**

Sarrera

Eusebio Erkiaga, beste gauzen artean, olerkari dugu. Hau kontutan izanik, haren omenez berak idatzitako olerkien bibliografia eskaini nahi dugu, baina aldizkari eta egunkarietan urteetan zehar argitaratutakoa eta 1990era artekoa.

Igone Etxebarriak dihardu E. Erkiagaren olerkien bilduma prestatzen; horietariko asko argitaragabeak dira. Honek hau esan nahi du: nik eskaintzen dudana olerkien bibliografia ez dela osoa, aldizkari eta egunkarietan argitaratutakoa bakarrik baizik.

Bibliografia honetan ikus genezakeenez, E. Erkiagaren olerkiak 25 aldizkari (eta egunkari) desberdinetan barreiatu aurkitzen dira; hau da, 127 (145) olerki. Gehienak berez izenez sinaturik datoz, baina askotan, hots, 57 bider «Endaitz» izenordez eta hiru bider «Erkiagarre» izenordez agertzen zaizkigu.

«Euzkadi» egunkaria izan da haren olerkirik gehien argitaratu dituen: 39 olerki; gero *Olerti* aldizkaria: 25; 18 olerki *Egan*-en, 10 *Ekin*-en, etab.

1931. urtean, hau da, 19 urterekin, hasi zen E. Erkiaga olerkiak argitaratzen. Lehenengo olerkia *Euzkadi*-n argitaratua da, «Kisto bakaldun!» izenburuz. Gero beste bi bider ere argitaratu zen olerki hau 1932an: *Euzkadi*-n eta *Ekin*-en.